

``Mugako bi aldeetarako``
Ángel Bados

29.09.2017-09.12.2017

CarrerasMugica

Behin (eskuartean nuen zeregina erabateko kaosetik hurbil zegoela uste dut), eskultura nire aurrean altxa eta hala adierazi zidan:

—“Naizena naiz eta neure legea daukat. (...) Igo ninduzuen idulkitik eraits nazakezue edo beste objekturen batzuk jarri nire orde, kolorez bete irudi sakratu hoberenak bezala edo nahiago baduzue eskema soil bilaka nazakezue, baina ongi dakizue, zuen abenturak baino lehenago eta geroago –eta uste osoz haiei erabat lotzen natzaie- nik bakarrik bihur dezakedala material hori haragi maitemindu, iraupenaren denbora gorpuztu ahal izateko. Eta ongi legoke, zuek esleitzen dizkidazuen kualitate espazialaren ezaugarri sinbolikoak horiek izanik, kontu handiz zaintzea”.

Beharbada horregatik ausartzen naiz orain nire lanarentzat artearen sustrai materiala besterik ez defendatzen, eta itxaropena dut piezaren bat altxatuko dela egiteak tailerrean mugitzen duenaren lekuko gisa, bizitzeko tokatu zaigun munduari buruzko iritziak tarteko edo betiko artearekin ikasitakoa eta gozatutakoa hausnartzuz; izan ere, ez da erraza eskultura batzuen berri ematea, eskuekin “modelatu” arren, buruan zeneukan horretatik ihes egiten baitute, eta kontingentzia hutsez burutzen dira, zentzugabekeriaren eta anarkiaren artean, eguneroko lanak ematen duen fedearen laguntza soilarekin.

Zentzu horretan, esan beharra dago lehenengo mugimendu materialetik jasan behar dituela egituraren parte logikoak mota guztietako apurketak eta ezustekoak; desira pizten duten gertakariak balira bezala, eta gogo hori asetzeko “ez dakigunarekin egin” behar izaten dugu nahitaez, eta nire iritziz Artearen jarduerak berezkoa du hori.

Izenburuei edo gaiei buruzko galderari dagokionez, aspaldi utzi nion izenburuak jartzeari, obra berak bere berezko deialdia egin dezan, baina egia da eskultura bakoitzak hasiera-hasieratik sustatzen duela bere identifikazioa lelo desberdinak erabiliz, dela beste artista batzuei egindako tributu edo paisaiari eta naturari egindako erreferentzia gisa, hasi etxeari eta menduari egiten zaizkion adierazpenetatik, eta sakanari eta bertan bizi diren gauzei egiten zaizkienera arte. Horrela sortzen dira Gordetzeko nekeza den etxea, Afrikar mendia, Hegoaldeko Gurutzea, Lalibela..., Oteizaren baimenarekin, I.B.-rentzat...

Baina paisaiari egindako erreferentzia, kulturala hau ere, arte arabiarrari eskainitako begiradarekin gurutzatu ohi da; dela bere arkitekturako espazioaren ekonomia materialari, edo monumentu erlijioso moduko horri egindakoa, batzuetan brodatutako kontakizunekin ebatzia. Horiek guztiak gure kulturako irudi-sail gero eta esplizituagoekin alderatuz gero, iraunkortasun sinbolikoaren adierazgarri dira niretzat. Beharbada horregatik erabiltzen ditut eskulturetan ia beti lausotuta dauden fotokopiak; kontsumoaren irudiaren kontrapuntua direla pentsatu nahi dut, bai eta eskulturarako material bihurtzeko trikimailu ere.

Dena dela, modu batera edo bestera, lanean present da beti eskultura talde bat -Kutxa Metafisikoak, Paul Kleeren omenez, Zu Pedro zara...-. Trazu onez egilearen mandatu esperimentala traizionatzen dutenean, azpian dagoen ideari edo gaiari gorputz materiala ematea lortzen dute; eta are gehiago, lekzio poetikoki enigmatikoenetako batzuen erantzun gisa jokatzeko dute, esaterako “(...) denbora artistak jartzen du eta ez dio ezerk ez inork kentzen”, eslogan bat balitz bezala errepikatuko duguna, azpian duten egia materialaz ohartu gabe.

Zergati horien inguruan gabiltzala, erakusketaren leloa Valentziako Al-Russafiren poesiaren zatiren bat izan liteke; XII. mendeko poeta hori Valentzian eta Malagan bizi izan zen, eta haren Itsasoa lorategiz egitea balego bertso-lerroa maiz entzun izan dut Bilbon bizi eta lan egin dudana. Baina Eskultura kondar gisa ere izan liteke, beren diziplinazko fragmentazioaren aurrean eskulturan piezek zer nolako militantzia duten ikusiz gero; edota Oteiza hor badago ere, gutako batzuk (Bilboko eskultoreak) egindako traizio sakona dela eta.

Dena den, zuen baimenarekin, Mugako bi aldeetarako izendatu genezake.

Angel Bados

Bilbo, 2017ko uda









Cabeza I, 2012. Egur, harri, tela, paper. 26x29x30cm.




Cabeza II, 2012. Egur, harri, tela. 24x26x37cm.



Montaña Africana III, 2013. Egur, paper. 45x44x31cm.



Montaña Africana III, 2013. Egur, paper. 45x44x31cm.



Titulo gabe, 2010. Harri, beira, paper, tela. 40x22x31cm.



Titulo gabe, 2014. Egur, kartoi, tela. 73x76x53cm.





Titulo gabe, 2014. Egur, kartoi, paper. 81x84x57cm.



Frontón, 2014. Egur, harri, kartoi, tela, burdin hari. 48x30x37cm.



Titulo gabe, 2011. Eskaiola, egur, tela, paper. 50x47x32cm.



Shifter II, 2010. Harri, kartoi, plastiko, paper. 48x40x15cm.



Titulo gabe, 2011. Eskaiola, egur. 53x55x22cm.





Shifter III, 2010. Kartoi, tela, paper. 83x62x21cm.






Palestina, 2012. Kartoi, egur, tela. 47x49x22cm.



Titulo gabe, 2012. Egur, tela, harri. 20x29x23cm.



Titulo gabe, 2013. Egur, kartoi, beira. 47x38x37cm.



Titulo gabe, 2013. Egur, kartoi, beira. 33x34x42cm.




Titulo gabe, 2007. Egur, paper, beira. 18x15x46cm.





La cruz del sur, 2012. Egur, tela, harri. 30x27x23cm.



Shifter I, 2007. Kartoi, egur. 59x59x19cm.



Titulo gabe, 2007. Beira, harri, paper. 26x27x34cm.





Montaña Africana I. Egur. 53x46x45cm.



Montaña Africana II. Egur. 53x46x45cm.





Para ambos lados de la frontera II, 2011. Plomu, tela. 91x163x107cm.



para ambos lados de la frontera

ANGEL RADOS



Caja difícil de guardar, 2012. Kartoi, egur, paper, plastiko. 47x35x24cm.



Para ambos lados de la frontera I, 2011. Plomu, tela. 152x90x84cm.





Lalibela, 2007. Egur, harri, tela. 29x24x26cm.



Proletario, 2013. kartoi, tela. 26x40x28.

Angel Bados (Olatzagutia, 1945), Arte Ederrak ikasi zituen Madrilgo San Fernando Errege Akademian, eta eskultura espezialitatean lizentziatu zen 1973an. Valentziako eta Bilboko Arte Ederren Fakultateko irakaslea izan zen, besteak beste. Txomin Badiolarekin batera, eskultura tailer batzuk eman zituen Artelekun 1994tik 1998ra, eta eragin handia izan zueneuskal artisten belaunaldi oso batengan, horietako batzuk oso garrantzitsuak baitira egungo panorama artistikoan. Haren obra hainbat museo eta bildumatan dago jasota, besteak beste: Caixa de Pensiones Fundazioa, Bartzelona; Arte Garaikidearen Museoa, Bartzelona; Juan March Fundazioa, Madril; Arte Ederren Nafarroako Museoa, Iruñea; ARCO Fundazioa eta Arte Ederren Museoa, Bilbo.

CarrerasMugica

www.carrerasmugica.com

info@carrerasmugica.com

Calle Heros 2 / E-48009 BILBAO
T. +34 944234725 / F. +34 944241841